

marca de clase

valor característico de la clase

eu klase-marka

in class mark

validación

eu sendespen

in validation

Valor añadido a precios básicos

Resultado neto de la producción a precios básicos menos los consumos intermedios a precios de adquisición. El valor añadido se registra a precios básicos.

eu Balio erantsia oinarritzko prezioetan

Oinarritzko prezioetan neurtutako produkzioari eroste-prezioetan neurtutako bitarteko kontsumoak kenduz ateratzen den emaitza garbia. Oinarritzko prezioetan erregistratzen da balio erantsia.

in Added value to basic prices

Added value is registered to basic prices and is the net result of production at basic prices less intermediate consumption at acquisition prices.

Valor Añadido Bruto a Coste de los Factores

Suma de la Remuneración de los asalariados más el Excedente Bruto de Explotación. El Valor Añadido Bruto a coste de los factores valora la aportación de los factores primarios (capital y trabajo) al proceso productivo.

eu Balio erantsi gordina faktore-kostuan

Soldatako langileen ordainsariak gehi Ustiapeneko soberakin gordinaren arteko batura. Faktore primarioek (kapitalak eta lanak) produkzio-prozesuari egiten dioten ekarpena baloratzen du faktore-kostuan neurtutako Balio Erantsi Gordinak.

in Gross Value Added at Factor Costs

El Gross Value Added at Factor Costs values the contribution of primary factors (capital and work) to the production process. It corresponds to the sum of remuneration of salaried workers plus Gross Operating Surplus.

Valor añadido bruto a precios de mercado

Valor nuevo creado en el proceso productivo durante el período considerado. Corresponde a la diferencia ente la Producción a precios de salida de fábrica y los Inputs Intermedios. Equivale, por lo tanto, a la suma del Excedente Bruto de Explotación y los Impuestos Ligados a la Producción, y descontándose las Subvenciones de Explotación.

- Si al Valor Añadido Bruto a precios de salida de fábrica para el total de la economía, se le añade el IVA que grava los productos y los Impuestos Ligados a la Importación, se obtiene el Producto Interior Bruto a precios de mercado.

eu Balio erantsi gordina merkatu prezioetan

Produkzio-prozesuan sortu den balio berria, aztertzen ari garen epealdian hartuta. Fabrika-irteerako prezioetan neurtutako produkzioaren eta bitarteko inputen arteko diferentzia da. Beraz, Ustiapeneko soberakin gordina eta produkzioari lotutako zergak batu, eta horri Ustiapeneko diru-laguntzak kenduz ateratzen denaren parekoa da.

- Fabrika-irteerako prezioetan neurtutako Balio Erantsi Gordinari gehitzen bazaizkio, osorik hartutako ekonomiarentzat, produktuen gaineko BEZa eta inportazioari lotutako zergak, merkatu-prezioetan hartutako Barne-Produktu Gordina ateratzen da.

in Gross value added at market prices

This represents the new value created in the production process during the period under consideration. It corresponds to the difference

between Production at ex-works prices and the Intermediate inputs. It is equivalent, therefore, to the sum of the Gross Operating Surplus and the Taxes linked to Production, after discounting the Operating Subsidies. If the VAT levied on products and Import Linked Taxes is added to the gross value added at ex-works prices for the whole economy, the Gross Domestic Product at market prices is obtained.

Valor Añadido Bruto a Precios de Salida de Fabrica

Valor nuevo creado en el proceso productivo durante el período considerado. Corresponde a la diferencia ente la Producción a precios de salida de fábrica y los Inputs Intermedios. Equivale, por lo tanto, a la suma del Excedente Bruto de Explotación y los Impuestos Ligados a la Producción, y descontándose las Subvenciones de Explotación.

- Si al Valor Añadido Bruto a precios de salida de fábrica para el total de la economía, se le añade el IVA que grava los productos y los Impuestos Ligados a la Importación, se obtiene el Producto Interior Bruto a precios de mercado (saldo contable de la Cuenta C1).

eu Balio erantsi gordina fabrika-irteerako prezioetan

Produkzio-prozesuan sortu den balio berria, aztertzen ari garen epealdian hartuta. Fabrika-irteerako prezioetan hartutako Produkzioaren eta bitarteko inputen arteko diferentzia da. Beraz, Ustiapeneko soberakin gordina eta produkzioari lotutako zergak batu, eta horri Ustiapeneko diru-laguntzak kenduz ateratzen denaren parekoa da. Ekonomia osoko prezio-irteerako prezioetan hartutako Balio Erantsi Gordinari produktuen gaineko BEZa eta inportazioari lotutako zergak gehitzen bazaizkio, merkatu-prezioetan hartutako Barne-Produktu Gordina ateratzen da (C1 kontuko kontabilitate-saldoa).

in Gross Value Added at Ex-Works Prices

Represents the new value created in the production process during the period under consideration. It corresponds to the difference between production at factory prices and the Intermediate Input. It is the same, therefore, as the sum of Gross Operating Surplus plus Taxes Linked to Production, and deducting the Operating Subsidies. If to the Gross Value Added at factory prices for the whole of the economy we add the VAT levied on the products and Taxes linked to Imports, the Gross Domestic Product at market prices is obtained (countable balance of account C1).

valor ausente

eu faltako balio

in missing data

valor crítico

eu balio kritiko

in critical value

Valor de la Producción Distribuida a Salida de Fábrica

Suma del Valor de la Producción Efectiva a salida de fábrica más la Fila de Transferencias.

eu Ekoizpen banatuaren balioa fabrika-irteeran

Fabrika-irteeran hartutako produkzio efektiboaren balioaren gehi Transferentzien errenkadaren arteko batura.

in Value of Distributed Ex-Works Production

Corresponds to the sum of the Value of Effective Ex-Works Production plus the Transfer Line.

Valor de la Producción Efectiva a Salida de Fábrica

Valor de los bienes y servicios producidos por cada rama, que equivale a la suma del Valor Añadido Bruto a precios de salida de fábrica más el total de los Inputs Intermedios.

eu Produkzio efektiboaren balioa fabrika-irteeran

Adar bakoitzak ekoizten dituen ondasunen eta zerbitzuen balioa; fabrika-irteerako prezioetan hartutako Balio Erantsi Gordinaren eta bitarteko inputen arteko batura da.

in Value of Effective Ex-Works Production

Is defined as the value of the goods and services produced by each branch and equals the sum of the Gross Value Added at ex-works prices plus total Intermediate Input.

valor esperado

eu itxarondako balio

in expectation

valor estimado

eu balio zenbatetsi

in estimated value

valor muestral

eu lagin-balio

in sample value

valor típico

valor estándar

eu balio estandar

in standard value

valor verdadero

eu egiazko balio

in true value

variabilidad

eu aldakortasun

in variability

variable aleatoria

variable estocástica

eu aldagai estokastiko

in stochastic variable

variable auxiliar

eu aldagai lagungarri

in auxiliary variable

variable cualitativa

eu aldagai kualitatibo

in qualitative variable

variable cuantitativa

eu aldagai kuantitatibo

in quantitative variable

variable de holgura

variable ficticia

eu lasaiera-aldagai

in dummy variable

variable dicotómica

eu aldagai dikotomiko

in dichotomous variable

variable estadística

eu aldagai estatistiko

in statistical variable

variable estandarizada

variable tipificada

eu aldagai estandarizatu

in standardized variable

variable excluida

eu aldagai baztertu

in excluded variable

variable explicativa

eu aldagai azaltzaile

in explanatory variable

variable fija

eu aldagai finko

in fixed variable

variable instrumental

eu aldagai instrumental

in instrumental variable

variable nominal

eu aldagai nominal

in nominal variable

variable observable

eu aldagai behagarri

in observable variable

variable ordinal

eu aldagai ordinal

in ordinal variable

variable retardada

eu aldagai atzeratu

in lagged variable

variable simulada

eu aldagai simulatu

in simulated variable

Variación de Existencias

Valor de los bienes producidos en el año que no han sido consumidos ni como inputs intermedios, consumo final o inversión, ni exportados. Puede considerarse como una inversión forzosa. Equivale a la diferencia entre lo producido y lo vendido, por lo que puede ser negativa al utilizar existencias de años anteriores. También se considera como Variación de Existencias el valor de la variación de la obra en curso o de productos semielaborados en el año.

eu Izakinen aldakuntza

Urte batean ekoiztutako ondasunen artean, bitarteko input gisa eta azken kontsumo edo inbertsio gisa kontsumitu ez diren eta esportatu ez diren ondasunen balioa. Nahitaezko inbertsiotzat har liteke. Ekoiztutakoaren eta saldutakoaren arteko diferentzia da, eta horregatik negatiboa izaten da beti, aurreko urteetako izakinak erabiltzen baitira. Izakinen Aldakuntzat hartzen da, berebat, egiten ari den obrak izandako aldakuntzaren edo urtean erdielaboratu diren produktuen balioa ere.

in Variation in Stock

This may be considered as a forced investment. It is made up of the value of the goods produced in the year in which they have not been consumed either as intermediate inputs, final consumption or investment, nor exported. It is the equivalent of the difference between what has been produced and what has been sold, and as such may be negative by using stock from earlier years. Variation in Stock may also be considered to be the value of the variation of ongoing work or semi-worked products during the year in question.

variaciones con repetición

eu errepikatuzko aldakuntzak

in variations with repetition

variaciones sin repetición

eu errepikatu gabeko aldakuntzak

in variations without repetition

varianza

eu bariantza

in variance

varianza condicional

eu bariantza baldintzatu

in conditional variance

varianza del muestreo

eu laginketaren bariantza

in sampling variance

varianza dentro de un estrato

eu geruza barneko bariantza

in within-stratum variance

varianza interclase

eu klase arteko bariantza

in interclass variance

varianza intraclase

eu klase barneko bariantza

in intraclass variance

varianza marginal

eu bariantza marjinal

in marginal variance

varianza muestral

eu laginaren bariantza

in sample variance

varianza muestral combinada

varianza combinada

eu lagin-bariantza konbinatu

in pooled variance

varianza poblacional

eu populazioaren bariantza

in population variance

varianza relativa

eu bariantza erlatibo

in relative variance

varianza residual

eu hondakin-bariantza

in residual variance

varianza total

eu guztizko bariantza

in total variance

Vascófonos

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera y que lo entienden y lo hablan "bien".

eu Euskaldunak

Ama-hizkuntza euskara izan duten eta euskaraz "ondo" ulertzen eta hitz egiten duten pertsonak.

in Basque language speakers

Those people whose mother tongue is Basque and who understand and speak it "well".

Vascófonos activos

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera, que lo entienden y lo hablan "bien" y cuya lengua de uso en casa es el euskera.

eu Euskaldun aktiboak

Ama-hizkuntza euskara izan duten eta euskaraz "ondo" ulertzen eta hitz egiten duten eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.

in Active Basque speakers

Those persons whose mother tongue is Basque, who understand and speak it "well" and whose everyday spoken language at home is Basque.

Vascófonos activos en ambas lenguas

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera, que lo entienden y lo hablan "bien" y cuya lengua de uso en casa es tanto el euskera como el castellano.

eu Bi hizkuntzetan aktibo diren euskaldunak

Ama-hizkuntza euskara izan duten eta euskaraz "ondo" ulertzen eta hitz egiten duten eta etxeko hizkuntzak euskara eta gaztelania dituzten pertsonak.

in Basque speakers active in both languages

Those persons whose mother tongue is Basque, who understand and speak it "well" and who use both Basque and Spanish at home.

Vascófonos pasivos

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera, que lo entienden y lo hablan "bien pero cuya lengua de uso en casa es el castellano.

eu Euskaldun pasiboak

Ama-hizkuntza euskara izan duten eta euskaraz "ondo" ulertzen eta hitz egiten duten eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

in Passive Basque speakers

Those persons whose mother tongue is Basque, who understand and speak it "well" but whose everyday spoken language at home is Spanish.

vector aleatorio

eu ausazko bektore

in random vector

vida media

eu batez besteko bizitza

in average life

Vivienda

Todo recinto estructuralmente separado e independiente que, por la forma en que fue construido, reconstruido, transformado o adaptado, está concebido para ser habitado por personas, y no está totalmente destinado a otros usos, y aquellos otros que no cumpliendo las condiciones anteriores están efectiva y realmente habitados en la época censal.

- Incluimos, en este concepto, los alojamientos y los establecimientos colectivos.

eu Etxebizitza

Egitura aldetik banandua eta independentea den barruti oro; pertsonak bizitzeko moduan eraiki, berreraiki, eraldatu edo egokitua da, eta ez du, erabat behintzat, beste gauza batzuetarako erabiltzeko helbururik. Edo, aurreko baldintza horiek ez bete arren, errolda egiteko garaian bertan, jendea benetan bizitzen zen bestelako barruti oro.

- Kontzeptu honen barruan sartzen dira ostatu-lekuak eta establezimendu kolektiboak ere.

in Housing

Housing is understood to be all structurally separated and independent premises which, due to the way in which they were constructed, reconstructed, transformed, or adapted, are conceived to be inhabited by people, and which are not entirely planned for other uses, and any others which, while not fulfilling the previous criteria are nevertheless effectively inhabited during the census period Collective lodgings and establishments are included in this section.

Vivienda familiar

Toda habitación o conjunto de habitaciones y sus dependencias que ocupan un hueco, un edificio o una parte estructuralmente separada del mismo y que, por la forma en que han sido construidas o transformadas, están destinadas a ser habitadas por una o varias personas y, en la fecha de referencia, no se utilizan totalmente para otros fines. El recinto puede estar habitado por una, por varias familias o encontrarse desocupado o vacío. Se considerará que una vivienda está vacía cuando no está habitada por personas.

eu Familia-etxebizitza

Hutsarte bat, eraikin bat edo egituraz banandutako eraikin-zati hartzen duen gela edo gela-multzoa. Pertsona bat edo gehiago bizitzeko moduan eraiki edo eraldatu da, eta, erreferentzia-datan, ez da guztiz beste helburu batzuetarako erabiltzen. Barrundegi horretan familia bat edo gehiago bizi litezke, edota hutsik edo jenderik gabe egon liteke. Bertan pertsonarik bizi ez denean, esango da etxebizitza bat hutsik dagoela.

in Family housing

Any room or group of rooms and depending area that occupy a property unit, a building or a structurally separate part thereof and that, by the way in which they were built or transformed, were designed to be inhabited by a person or group of persons and, on the reference date, are not used wholly for other ends. The area may be inhabited by one or several families or be uninhabited or empty. A building is considered empty when it is not inhabited by persons.

Vivienda libre

Viviendas promovidas en el mercado de vivienda y que no han sido objeto de calificación administrativa como viviendas de protección oficial.

eu Etxebizitza libreak

Etxebizitzen merkatuan sustatuak izan diren etxebizitzak, eta babes ofizialeko etxebizitza mailako sailkapen administratiborik izan ez dutenak.

in Private housing

Housing promoted on the housing market and which has not been subject to administrative classification as subsidised housing.

Vivienda mixta

Es aquélla que cumple todos los requisitos propios de la vivienda familiar y, en la que, además, se desarrolla una actividad económica.

eu Etxebizitza mistoa

Familia-etxebizitzaren berezko baldintza guztiak betetzeaz gainera, bertan bestelako jarduera ekonomikoren bat ere egiten dena.

in Mixed housing

Mixed housing is housing that complies with the requisites of family housing and in which an economic activity is also carried out.

Vivienda social

Viviendas de protección oficial destinadas a los sectores sociales con menores niveles de ingresos y con precios de venta y renta máximos inferiores a los establecidos en el régimen general de aplicación para el resto de viviendas de protección oficial. Administrativamente se califican con tal carácter de viviendas sociales.

eu Gizarte-laguntzako etxebizitza

Sarrera-maila txikieneko gizarte-sektoreentzat diren babes ofizialeko etxebizitzak. Saltzeko eta errentan emateko gehieneko prezioak txikiagoak dira babes ofizialeko beste etxebizitza guztientzat aplikatzen den araubide orokorrean ezarritakoak baino.

in Social housing

Subsidised housing destined for social sectors with lower income levels and with maximum sales and rent prices below those established in the general application regime for the rest of subsidised housing. In administrative terms they are classified as social houses.

Viviendas de protección oficial

Viviendas que la administración califica como tales y que han de cumplir para ello determinados requisitos en cuanto a superficies, normas de diseño y calidad. No deben superar los precios máximos de venta y renta fijados administrativamente y han de ser destinadas a residencia habitual y permanente de las personas físicas.

- La administración interviene en el mercado de vivienda para impulsar un producto adecuado, en precios y características, a los segmentos protegibles de la población establecidos en su política de vivienda. Como contrapartida, impone una serie de regulaciones que garanticen la finalidad social de su intervención en el mercado.

eu Babes ofizialeko etxebizitzak

Administrazioak halakotzat kalifikatzen dituenak eta, beraz, azalera eta diseinu eta kalitate-arauei buruz halako baldintza jakin batzuk bete

behar dituztenak. Ezin dute administratiboki ezarritako saltzeko eta errentan emateko gehienezko preziorik gainditu, eta pertsona fisikoen bizileku ohiko eta iraunkor izateko erabili behar dira. Etxebizitza-politikan babestu nahi diren biztanleria-segmentuentzat produktu egoki bat - prezioz eta ezaugarri- eskaintzeko esku hartzen du administrazioak etxebizitzaren merkatuan.

- Horren ordainetan, hainbat erregulazio ezartzen ditu, merkatuan egiten duen esku-hartze horrek helburu soziala duela bermatzeko.

in Subsidised housing

Homes that the administration classifies as such and that comply with determined requisites with regard to surface area, design and quality regulations. They must not be above maximum sales or rent prices set by the administration and must be destined for habitual and permanent residence. The administration intervenes in the housing market to boost a suitable product, at prices and with characteristics suitable for certain segments of the population as established in its housing policy. In contrast, a series of regulations are imposed that guarantee the social aim of its intervention in the market.

Viviendas familiares

Toda habitación o conjunto de habitaciones y sus dependencias que ocupan un edificio o una parte estructuralmente separada del mismo y que, por la forma en que ha sido construida, reconstruida, transformada o adaptada, está destinada a ser habitada por una o varias personas, y en la fecha censal, no se utiliza totalmente para otros fines.

- El recinto puede estar parcialmente destinado a otros fines (consulta médica, peluquería, sastrería, etc.); sin embargo, aquellos recintos contruidos inicialmente como viviendas, pero que en la época de la estadística se utilizan exclusivamente para otros fines no se censan (viviendas que se han transformado totalmente en oficinas, talleres, almacenes, etc.).

- Las viviendas familiares están incluidas en la estadística con independencia de que estén ocupadas o no en la fecha de referencia.

- Las viviendas familiares se clasifican en principales, secundarias y desocupadas.

- Principales: Cuando se utilizan toda o la mayor parte del año como residencia habitual de una o más personas.

- Secundarias: En la fecha en que se realizó la estadística estaban ocupadas exclusivamente por transeúntes, a diferencia del Censo de 1991, que además recogía las viviendas vacías destinadas a ser ocupadas solamente parte del año de forma periódica o esporádica (casas de campo, playa o ciudad que se emplean en vacaciones, verano, fines de semana, etc.)

- Desocupadas: Cuando, sin encontrarse en estado ruinoso, ni en ninguna de las situaciones anteriormente consideradas, habitualmente se encuentran deshabitadas.

eu Familia-etxebizitzak

Eraikin bat edo egituraz banandutako eraikin-zati hartzen duen gela edo gela-multzoa. Pertsona bat edo gehiago bizitzeko moduan eraiki, berreraiki, egokitu edo eraldatu da, eta, errolda-datan, ez da guztiz beste helburu batzuetarako erabiltzen.

- Zilegi da barrutia partzialki beste helburu batzuetarako erabiltzea (mediku-konsulta, ile-apaindegia, jostundegia, etab.), baina jatorriz etxebizitza izateko eraikitako eta estatistika egiteko garaian beste helburu batzuetarako erabiltzen diren barrutiak ez dira erroldan sartzen (bulego, tailer, biltegi, etab. erabat bihurtu diren etxebizitzak, adibidez).

- Erreferentzia-datan okupatuta dauden edo ez dauden kontuan hartu gabe sartzen dira familia-etxebizitzak estatistikaren barruan.

- Familia-etxebizitzak hiru sailetan banatzen dira: nagusiak, bigarren etxebizitzak eta hutsik daudenak.

- Nagusiak: urte guztian edo urteko zatirik handiengan pertsona baten edo batzuen ohiko bizilekutzat erabiltzen direnak.

- Bigarren etxebizitzak: estatistika egindako egunean pasadizoko pertsonekin bakarrik beteta zeuden etxebizitzak; 1991ko Erroldan etxebizitza horiez gainera urte-sasoi batean bakarrik, aldizka edo inoizka, okupatzen ziren etxebizitza hutsak ere jasotzen ziren (oporretan, udan edo asteburuetan erabiltzen diren landako, hondartzako edo hiriko etxeak).

- Hutsik daudenak: aurri-egoeran edo aurretik aipatutako egoera horietakoren batean egon gabe, ohiki jenderik bizi gabe egoten diren etxebizitzak.

-

in Family housing

A family house is any room, or collection of rooms and dependent rooms which occupy a building or a structurally separate part of a building, and which, due to the way in which it has been constructed, reconstructed, transformed, or adapted, is destined to be inhabited by one or more people, and is not exclusively used for other purposes during the census period. The premises may be partially used for other purposes (doctors surgery, hairdressers salon, tailors workshop, etc.); however, those premises initially built as housing, but during the census period were used exclusively for other purposes were not included (housing which has been totally transformed into offices, workshops, warehouses, etc.). Family housing is included in the statistic regardless of whether it is occupied or not at the time of reference. Family housing is classified into main, second and unoccupied. -Main: When it is used during all or part of the year as the habitual residence of one or more persons. - Second: On the date the statistic was recorded this housing was exclusively occupied by people in transit, as opposed to the 1991 Census, which also included empty housing which might be used periodically or sporadically during only part of the year (country houses, beach houses, city houses used for vacations, summer, weekends, etc.) -Unoccupied: This housing is, although not in a state of ruin, nor in any of the situations described above, usually unoccupied.

Viviendas protegidas

Término sinónimo, en sentido estricto, al de viviendas de protección oficial (suma de viviendas sociales y resto de viviendas de protección

oficial).

- En una acepción más amplia englobaría al conjunto de viviendas (nuevas y/o usadas) objeto de alguna protección (ayuda pública instrumentada en cualquiera de sus acepciones y modalidades), con independencia de que las viviendas objeto de protección hayan sido calificadas o no como de protección oficial.

eu Etxebizitza babestuak

Berez eta zentzu hertsian, babes ofizialeko etxebizitzaren sinonimoa da (etxebizitza sozialen eta babes ofizialeko beste etxebizitzaren arteko batura).

- Zentzu zabalagoan hartuta, nolabaiteko babesa (edozein era edo kontzeptu bidez bideratutako laguntza publikoa) izan duten etxebizitza guztiak (berriak edo erabiliak) hartuko lituzke, babes hori jaso duten etxebizitzak babes ofizialeko etxebizitza gisa kalifikatuak izan diren edo ez kontuan hartu gabe.

in Subsidised houses

Synonymous term, in the strict sense, for subsidised houses (sum of social housing and the rest of subsidised housing). In a wider definition it would include the whole group of housing (new and/or second hand) subject to some kind of protection (public subsidy in any of its definitions and modalities), regardless of whether or not the subsidised housing has been classified as official subsidised housing.